

**Ebazpena: R24/2023**

**Espedientea: 55/2019**

Vitoria-Gasteizen, 2023ko martxoaren 22an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak eta Sofia Arana Landín batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatutakoak, hau erabaki du:

### **ERABAKIA**

EOSLk Bizkaiko Foru Aldundiaren (aurrerantzean, BFA) eta Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren (aurrerantzean, ZAEA) aurrean planteatutako gatazka negatiboari buruz, zeinaren helburua baita 2014. urtea baino lehen jasandako BEZaren kuotak ordainarazteko (itzultzeko) eskumena eta dagozkion interesak zehaztea. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 55/2019 espediente-zenbakiarekin.

### **I. AURREKARIAK**

1.- EOSL 2000ko ekainaren 15ean eratu zen, Bilbon (Bizkaia) egoitza soziala eta zerga-egoitza izanik. Objektu soziala nekazaritzako produktuak merkaturatzea du.

Bazkide bakarra ASC da, eta lurralde erkidean du zerga-egoitza.

Sozietateak 2015era arte ordaindu zituen zergak, BFari barne.

**2.-** 2015ean, ZAEAk errolda-egiaztapeneko prozedura bat egin zuen, egoitza egiaztatzerara mugatua. Prozedura horretan, zergapekoak 2015eko martxoaren 25ean adierazi zuen aurreikusita zuela egoitza soziala eta zerga-egoitza araubide erkideko lurraldera aldatzea 2015eko ekainean.

**3.-** Zergapekoak 2015eko azaroko eta abenduko autolikidazioak aurkeztu zituen, eta 682.178,22 eta 44.536,89 euro itzultzeko eskatu zuen, hurrenez hurren.

**4.-** 2016ko urtarrilaren 4an, EOSLk Madrilera aldatu zuen bere egoitza, urte horretako urtarrilaren 1era arteko atzeraeraginezko ondorioekin.

Une horretatik aurrera, zergapekoak Estatuari bakarrik ordaindu zizkion zergak.

**5.-** BFAk zergapekoaren zerga-egoitza egiaztatzeko prozedura hasi zuen, eta 2017ko otsailaren 9an ZAEARI egoitza aldatzeko proposamena egin zion, atzeraeraginezko ondorioekin.

ZAEAk 2017ko urriaren 18an onartu zuen foru-proposamena, baina atzeraeraginaren ondorioak 2011ko ekainaren 3ra mugatuta. BFAk 2017ko azaroaren 14an onartu zuen atzeraeraginaren data.

Ondoren, ZAEAk zergapekoarekin izapidetu zuen egoitza aldatzeko prozedura. Prozedura hori zerga-egoitza aldatzeko akordioarekin amaitu zen, 2018ko martxoaren 7an preskribatu gabeko ekitaldietarako atzeraeraginarekin, zergapekoarekiko zerga-harreman juridikoari dagokionez, eta 2017ko otsailaren 9an preskribatu gabeko ekitaldietarakoarekin, administrazioen arteko harreman juridikoari dagokionez.

**6.-** 2019ko maiatzean, zergapekoak honako hileroko autolikidazio hauek aurkeztu zizkion ZAEari: 2014ko otsailetik 2015eko urrira bitartekoak, konpentsatzeko emaitzarekin, eta 2015eko azaro eta abendukoak, itzultzeko eskaerarekin.

ZAEaren hileroko itzulketen sisteman alta emanda ez zegoenez, autolikidazio berberak aurkeztu behar izan ziren berriro, baina oraingoan hiru hilez behingo aitorpen-aldian. Konpentsatzeko kuota 634.266,95 eurokoa zen 2014ko laugarren hiruhilekoan, eta itzultzeko kuota 726.715,11 eurokoa 2015eko laugarren hiruhilekoan.

**7.-** ZAEAk behin-behineko likidazioa eman zuen: 2014a baino lehenagoko aldietan sortutako eta konpentsatu beharreko BEZaren kuotak kendu zituen (302.511,64 euro), eta gainerako zenbatekoa itzuli zuen, 2015eko laugarren hiruhilekoko autolikidazioa BFAn aurkeztu ondorengo 6 hilabeteetatik sortutako berandutze-interesekin (Madrilgo Eskualdeko Ekonomia eta Administrazio Auzitegiaren 2022ko urtarrilaren 27ko Ebazpenaren ondorioz).

**8.-** Zergapekoak 2019ko urrian eskatu zuen 2014. urtea baino lehenagoko konpentsatzeko BEZaren saldoa itzultzea, baina ez zaio onartu, ezta ordaindu ere.

**9.-** 2019ko abenduaren 3an, zergapekoak gatazka negatiboa aurkeztu zuen 2014a baino lehenagoko ordainarazpen-eskumenari buruz, dagozkion berandutze-interesak barne.

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

### 1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Ekonomia Itunaren 66.Bat artikulua ezartzen du Arbitraje Batzordearen eginkizunak hauek direla:

*a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai itundutako zergen lotura-puntuari aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zerga edota balio erantsiaren gaineko zerga administrazio bati baino gehiagori ordaindu behar zaionean.*

*b) Banakako zerga-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.*

*c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.*

### 2.- Gatazka negatiboa onartzea

ZAEAk ohartarazi du ezen, baieztatzen ez badu ere, litekeena dela gatazka izapidetzeko ez onartzea, ez dagoelako jasota BFAk 2014a baino lehen sortutako konpentsatzeko BEZaren itzulketari uko egin dionik.

Argi dago BFAk ez dituela izapidetu 2014. eta 2015. urteetako itzulketak, 2014. urtea baino lehen sortutako eta jasandako BEZaren saldoak barne hartzen dituztenak, nahiz eta ondoren hainbatetan errepikatu. Beraz, argi dago ez duela bere eskumena onartzen. Ondorio horixe ateratzen da alegazioetatik.

**3.-** 2014. urtea baino lehen sortutako BEZaren saldoak ordainarazteko (itzultzeko) eskumena

Egoitza foru-lurraldetik lurralde erkidera (edo alderantziz) aldatzeko prozedurak bi fase ditu:

a.- Lehenengoa administrazioen arteko fasea da, eta foru- eta estatu-administrazioen arteko erabakia lortzea du helburu.

b.- Bigarrenean, Tributuen Lege Orokorrean edo dagokion Tributuen Foru Arau Orokorrean aurreikusitako egoitza aldatzeko prozedura izapidetzen da zergapekoarekin. Erabaki hori errekurritu ahal izango da, eta horrek, edukiari ez ezik, lehenengo fasetik eratorritakoari ere eragin diezaioke.

Lehenengo fasean erabakirik lortzen ez bada, gatazka bat izapidetuko da Arbitraje Batzordean; horren berri emango zaio zergapekoari (azken alegazioak aurkeztu ahal izango ditu), eta, beraz, hura ere lotuko du ebazpenak; ez da beharrezkoa izango harekin izapidetzea geroko egoitza-aldaketaren prozedura. Erabaki horren aurka errekurtsua jar daiteke, eta horrek edukiari eragin diezaioke.

Kasu honetan, administrazioek erabaki bat hartu zuten, helbide-aldaketaren ondorioak 2011ko ekainaren 3ra atzeratzeko.

Zergapekoaren egoitza aldatzeko ondorengo prozeduran, erabaki bat hartu zen, atzeraeragina data hauetara mugatzen zuena:

a.- 2018ko martxoaren 7an preskribatu gabeko ekitaldietara, zergapekoarekiko zerga-harreman juridikoari dagokionez.

b.- 2017ko otsailaren 9an preskribatu gabeko ekitaldietara (BFAk ZAEARI egoitzaz aldatzeko proposamena egin zion eguna), administrazioen arteko harreman juridikoari dagokionez.

Horren arabera, ZAEAK 2014ko martxoaren 7tik egin behar dio aurre BEZa ordainarazteko eskumenari, zergapekoari dagokionez.

Hala, 2014 baino lehenagoko urteetako konpentsatzeko BEZaren kuotak ez dizkio ZAEAK ordaindu behar zergapekoari, Auzitegi Gorenak egoitza-aldaketaren kasuan konpentsatu edo itzuli beharreko saldoak ez lekualdatzeari buruz emandako jurisprudentiaren arabera (besteak beste, Auzitegi Gorenaren 2010eko ekainaren 10eko Epaia —ECLI:ES:TS:2010:4013— eta 2010eko ekainaren 17koa —ECLI:ES:TS:2010:4101—).

Beraz, Administrazioaren eta zergapekoaren arteko zerga-harreman juridikoan, BFAk hartu behar du bere gain 2014. urtea baino lehen sortu den konpentsatzeko BEZaren saldoei dagokien itzulketa.

Gainera, Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Araudiaren 15.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, bere gain hartu behar ditu zenbateko horri dagozkion interesak, 2015eko azaroari eta abenduari dagokienez itzulketa-eskaera egin zenetik sortutakoak.

Dena den, administrazioen arteko ondorioekin, ZAEAREN jakinarazpenak zer eragin duen baloratu behar da, 2011ko ekainaren 3ra arteko atzeraeragina onartuta.

Administrazioen arteko kreditu publikoaren eskubidea 4 urtera preskribatzen da (47/2003 Legearen bidez onartutako Aurrekontuen Lege Orokorren 15.1 artikulua —aurrerantzean, ALO—).

Preskripzioa ofizioz aintzat hartu behar da (15.2 ALO). ALOren 11.2 artikuluan aurreikusitakoa aplikatuta, ulertu behar da ezin zaiola uko egin irabazitako preskripzioari.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentziaren arabera (besteak beste, 2015eko abenduaren 15eko Epaia —ECLI:ES:TS:2015:5337—, 2022ko otsailaren 10eko Epaia —ECLI:ES:TS:2022:596—, 2020ko abenduaren 3ko Epaia —ECLI:ES:TS:2020:4077—, 2021eko urtarrilaren 28ko Epaia —ECLI:ES:TS:2021:372—, 2020ko maiatzaren 18ko Epaia —ECLI:ES:TS:2020:1010—) administrazio arteko izaera publikoko eskubidea preskribatuta dago 2013ko otsailaren 9a baino lehen sortutako zergei dagokienez.

Ondorioz, ZAEAK BFARI igorri beharko dio 2013ko otsailaren 9tik 2014ko martxoaren 7ra bitartean jasandako BEZAREN saldoetatik sortutako konpentsatzeko BEZAREN autolikidazioen saldoa.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hauxe

**ERABAKITZEN DU**

1.- Adieraztea BFari dagokiola zergapekoaren 2013ko BEZa ordainarazteko eskumena, eta, hala badagokio, dagozkion berandutze-interesak ordaintzeko betebeharra.

2.- ZAEAk BFari igorri behar dio 2013ko otsailaren 9tik 2014ko martxoaren 7ra bitartean jasandako BEZaren saldoetatik sortutako konpentsatzeko BEZaren autolikidazioen saldoa.

3.- Erabaki hau Zerga Administrazioiko Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta EOSLri jakinaraztea.